

## Organiza&atilde;o das Cooperativas Brasileiras no Estado de Mato Grosso-ko bisita

2014/05/14

Maiatzaren 5ean OCB/MG Organiza&atilde;o das Cooperativas Brasileiras no Estado de Mato Grossoko ordezkariak Mondragon Unibertsitatea bisitatu zuten kooperatibagintza arloko formakuntzaren baitan elkarlana indartzeko.

Bisitariak, Onofre Cezario Doktorea (Presidentea) eta Janete Carmen Dalabarba (OCB/MT Sistemaren Ahokulari Estrategikoa) izan ziren. Gure artean bi egun egin zituzten eta MONDRAGON Korporazioa ezagutzeaz gain, OTALORA ere bisitatu zuten eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko fakultateak baita ere.

